

Abarak

UNAI BREA

Jainkoaz agian gehiegi mintzatzen den fisika liburua

The grand design. Stephen Hawking & Leonard Mlodinow. Bantam Books, 2010.


STEPHEN HAWKING gure garaiko fisikari teorikorik onenetakoa da, eta zalantzarik gabe, gure garaiko fisikari teoriko ezagun bakarra da. Sarkozy, Ratzinger eta, kasu baterako, Einstein ezagunak diren maila berean, esan nahi dut. Ez dakit noraino eragin duen horrek *The grand design*en (Diseinu handia) azalean Hawkingen izena Leonard Mlodinowena baino askoz hizki handiagoz agertzeko. Argitu dezagun halere Mlodinowek zientziaren arloan daukan curriculumak ez diola inondik inora itzalik egiten Hawkingenari; fisikan doktorea da Mlodinow, baina ezagunagoa da gidoilari aritu izanagatik *Star Wars*, *Star Trek* eta *McGyver*-en, besteak beste. Hawkingekin batera sinatutako bigarren lana du hau.

The grand design zientzia-dibulgazio lan bat irakur daitekeen bezain erraz eta arin irakurtzen da. Ezaugarri hori Mlodinowen lumari egozten diote adituek. Nahikoa modu ulerkorrean, eta umore printzez josita, *The grand design*en orrialdeek mekanika kuantikoaz, oraindik garatzeke dagoen M teoriak eta haren hamaika dimentsioez, printzipio antropikoaz, unibertsoaren sorreraz eta multibertsoaz ilustratuko zaituzte. Gai latzak publiko zabalarentzat, baina beti bezala Hawking saiatu da matematikaz zipitzik ez dakigunontzako moduko azalpenak ematen. Esaldi batzuk behin baino gehiagotan irakurtzekoak dira, baina gauza bera gertatzen da mota honetako liburu guztietan. Albert Einsteinek esana omen da gauzak

ahalik eta modurik sinpleenean azaldu behar direla, baina ez sinpleago. Eta hala ere, nahikoa sinplifikatu dute egileek. Agian larregi, kosmologiaren gaineko dibulgazio-lanak irakurtzera ohituta bazaude.

Liburua indarrez hasten da: lehenengo orrialdea amaitu gabe filosofia hil dela deklaritzen du. Eta sei orrialde besterik ez dituen lehen pasartean bertan, Galdera Handiak jartzen ditu mahai gainean: zergatik dago “zerbait”, “ezer ez”-en orde? Zergatik existitzen gara? Esan gabe doa horien erantzuna ez dagoela liburuan, batzuetan hala iradoki arren. Gehiago dirudi, gaiak egiten den aipamen kopuru nire aburuz handiegia ikusita, egileek kosta ahala kosta nahi izan dutela frogatu unibertsoak ez duela Sortzaile baten beharrik izan –Jainkoa, esango genioke latitude honetan–; zientziak aspaldi frogatu ez balu bezala! Dagoeneko horretaz konbentzitu ez dagoenik konbentzitzen hasteko beranduegi da, baina kasta horretakoak oraindik asko eta boteretsuak direnez, polemika ederra piztu zen liburuaren inguruan, hura argitaratu aurretik ere. Hawkingek Jainkoaren existentzia ukatu du!, zioten duela urtebe inguruko titular asaldatu itxurakoek.

Gehitu horri egilearen ospea eta liburuaren ustezko helburua izatea ingurutzan gaituen eta errealitate izena ematen diogun hau zer ote litekeen eta nondik demontre letorkeen esplikatzeko ahalegin-tzea, eta hahor milaka erosleren jakin-gosea behar bezala kitzikatu-ta. Bide batez, liburuak dio unibertsoa berez eta ezerezetik eratu zela, grabitatearen eraginez. Baina ez zergatik. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia